

# 1. UNITATEA

## **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, ikasle bakoitzak bere oporrak ahoz eta idatziz azaldu, eta, gero, mapan kokatuko ditu.

Unitatean oporrei buruz hitz egin eta, aldi berean, informazio hori idatziko dute, albuma osatzeko. Munduko mapan, oporretan zer herritan edo hiritan egon diren erakutsiko dute.

Lehen unitate honetan zikloko maskotak izango diren bi panpina aurkezten dira: Patato eta Dardartsu. Ikasleek horiekin jolasteko aukera izango dute.

## **METODOLOGIA**

---

Azken xedea eta ikasiko dutena aurkezten zaizkie. Horixe izango da ikaskuntza-prozesuaren kontrol-orria.

Banakako lana egingo dute, norberaren oporrei buruzko informazioa ahoz eta idatziz adieraziz.

Binaka jarrita, paisaia baten deskripzioa egingo dute, koadernoko ariketa moduan.

Talde-lanean, launaka jarriz, albumaren proposamena prestatuko dute idatziz: azala, aurkibidea eta informazioaren antolaketa. Proposamenean taldekideen ardura ere zehaztuko dute.

CDa ahozko adierazpenerako egiturak ezagutzeko eta lantzeko erabiliko da.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Entzungaietatik informazio zehatza identifikatzea.

Oporrei buruzko azalpenak ematea.

Proposamenak egitea.

Arretaz entzutea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Norberaren oporrak ahoz azaltzea, nora, norekin eta nola joan den esanez ikaskideei bizipenen berri emateko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Ereduaren laguntzaz, ematen du bere oporrei buruzko informazioa.
- 1.2. Adierazten ditu bere bizipenak, marrazkien bidez.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Tokia deskribatzea.

Irudiak interpretatzea.  
Idatzitakoa txukun aurkeztea.  
Deskripzioak ulertzea.  
Mapak interpretatzea.  
Oporrei buruzko azalpena.

#### Ebaluazio-irizpideak

2. Norberaren oporrei buruzko informazioa idaztea; fitxan nora, norekin eta nola joan den azaltzeko, tokiaren deskribapena egiteko, eta egin dituen gauzak adieraziz denen fitxekin albuma egiteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Azaltzen du oporretan egindakoa, testu sinple batean.
- 2.2. Ereduaren arabera eta irudiaren laguntzaz, deskribatzen du leku bat.
- 2.3. Badaki albumaren azala idazten.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

Patato eta Dardartsu irakurgaia.

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Jarraibide-testua ulertzea, argibideei jarraituz Patato eta Dardartsu panpinak egiteko eta irakurketaz gozatzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ulertzen du, marrazkien laguntzaz, jarraibide-testua, eta jarraitzen die pausoei.
- 3.2. Badaki Patato eta Dardartsu nolakoak diren esaten.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

Azalpena: nora joan den, norekin, zerez, zer egin duen...

Deskripzioa: zer dagoen eta nolakoa den.

#### Ebaluazio-irizpideak

4. Ereduen laguntzaz, ahozko eta idatzizko adierazpen zuzena egitea, oinarrizko arauak errespetatuz adierazpen zuzena eta garbia egiteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ahozko azalpenean, ondo azaltzen du nora, norekin eta nola joan den, baita tokia nolakoa den eta zer egiten duen ere.
- 4.2. Badaki informazioa ordena egokian esaten eta idazten.
- 4.3. Ondo adierazten du tokiaren deskripzioan zer dagoen eta tokia nolakoa den.
- 4.4. Ondo erabiltzen ditu puntuazio-markak.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Mapan herriak eta hiriak bilatzea.
- Orientazioa espaziala: hainbat leku mapan kokatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Informazioa bilatzea eta mapan kokatzea.
- Taldeko lanean aritzea.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Deskripzioa: gauza/leku baten deskripzioa egitea.
- Azalpena: oportretan egindakoa adieraztea.

### **Gaitasun digitala**

- Herri eta hiriei buruzko informazioa hainbat iturritatik jasotzea.
- Irudietatik informazioa ateratzea.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Besteen iritziak, bizimodua eta aisialdiko ohiturak errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Beste lurralde eta ohitura batzuk errespetatzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Taldeko lanetan, lanaren banatzea eta antolatzea.
- Ardurak hartzea eta betetzea.

## **2. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, ezagunak diren abestien letra aldatu eta, gero, grabatu egingo dute.

Hizkuntzarekin jolastuko dira, abestiak ikasiz eta horiekin euskara ikasiz. Giro horretan, hitzak aldatzen ikasiko dute. Hitzekin jolastuko dira, errimak aurkituz.

Azken ekoizpena egiteko, landu dituzten bi abestietatik bat aukeratuko dute.

Eredu gisa, Magilaren abestia ematen zaie aldaturik.

### **METODOLOGIA**

---

Binakako lana egingo dute, abestia birmoldatzeko eta bien artean abesteko.

CDa abestien doinua eta animalien hotsak ikasteko erabiliko da.

Jolas-giroan, abestiak ikasiz eta abestuz, animalien ezaugarriak ikasiko dituzte.

«Prontzio oilarra» ipuina irakurri eta, irudien laguntzaz, ulertu egingo dute.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Animalien gorputz atalak identifikatzea eta izendatzea: mihia, lepoa, muturra, oskola, hanka, belarriak.

Abestean esanahia keinuen bidez adieraztea.

Hitzekin jolastea.

Abestiak abestu nahi izatea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Euskal abestiak moldatzea eta abestea, euskaraz jolasteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Abestiak buruz ikasi eta abesten ditu, doinu egokiaz.
- 1.2. Ikasi eta abesten du sortutako abestia, doinu eta keinu egokiak erabiliz.
- 1.3. Ulertzen du abestietan entzundako informazioa.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Abestiak irakurtzea.

Abesti berriak asmatzea.

Abestietan hitzak aldatzea. Animalien atalak idaztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Euskal abesti ezagunen letrak moldatzea, animalien izenak, ezaugarriak eta hotsak aldatuz, eta silaba-kopurua kontuan izanik doinua mantenduz, abesti berriak sortzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Asmatzen ditu abesti berriak, silaba-kopuru bera duten hitzak aldatuz.
- 2.2. Ematen du abestiak animaliar buruzko informazio koherentea.
- 2.3. Ulertzen eta erabiltzen du aditza pluralean.
- 2.4. Ondo erabiltzen ditu animaliairen onomatopeiak.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### **Edukiak**

Euskal abestiak entzutea, ikastea eta abestea.

«Prontzio oilarra» ulertzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Ipuina irudien laguntzaz ulertzea, euskaraz irakurriz gozatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ulertzen du ipuina irudien bidez.
- 3.2. Gauza da ipuina keinuen bidez adierazteko.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Adjektibo bikoiztuak: beltz-beltza, zuri-zuria...

Nolakoa: zorrotza, biguna, gogorra...

Hitzen silabak bereiztea.

Ebaluazio-irizpideak

4. Adjektibo bikoiztuak egiten ikastea, idazteko araua errespetatuz, abestian erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Abestietan, erabiltzen ditu adjektibo bikoiztu egokiak.
- 4.2. Badaki hitzak silabatan ondo banatzen.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Animalien izenak erabiltzea.
- Animalien atalak identifikatzea eta izendatzea.
- Hitzen silabak zenbatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Abesti berriak sortzeko estrategiak erabiltzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Sortutako abestiak ikaskideei abestea.
- Deskripzioa: animalien atalak deskribatzea.

### **Gaitasun digitala**

- Abestietatik informazioa jasotzea.
- Grabaketak egiteko teknologia erabiltzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Iritziak ematea eta ikaskideenak errespetatzea.
- Besteen ekoizpenak errespetatzea.
- Besteen abesteko modua errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Abestiak asmatzeko sormena erabiltzea.

- Abestiekin jolastea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Sormena: abestiak sortzea.
- Abesti bat sortu arte eman behar diren pausoak barneratzea.

## **3. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, udazkenari buruzko antzezlanaren egingo dute denon artean.

Udazkenaren oinarrizko ezaugarriak ikasiko dituzte, baina jolas-giroan: eguna laburtu egiten dela eta eguzkiak berotasun txikiagoa ematen duela, zer fruitu biltzen diren... Naturako elementuek egingo dute hitz. Gertatzen zaiena kontatuko dute. Benetako antzezpena izateko, jantziak eta dekoratua prestatuko dute. Unitatean bertan, proposamen batzuk egiten dira. Testuaz gain, keinuak eta doinua ere landuko dira.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka egingo dute lan, denon artean antzezlanaren aurrera ateratzeko. Partaide bakoitzak bere pertsonaiaren testua ikasi eta esango du. Berez, sei pertsonaia daude, baina intsektuak eta arbolak bat baino gehiago izango direnez ikasle-kopurua handia bada, bitan banatu daitezke gela. Antzezteko bi talde egin daitezke, eta bakoitzak bere jantziak eta dekoratua proposatuko ditu. CDan antzezlanaren entzungo dute, doinua eta hitz egiteko era ikasteko. Hasierako komikia informazioa ulertzeko erabiliko da, eta, aldi berean, egin behar diren keinuak identifikatzeko.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Udazkenari buruzko azalpenaren entzutea eta ulertzea.

Arretaz entzutea.

Udazkenari buruzko antzerkia: pertsonaiak, jantziak, keinuak eta intonazioa

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Antzezpena egitea, testua ikasiz eta pertsonaien artean banatuz, eta dekoratua eta jantziak prestatuz, udazkenari buruzko informazioa ezagutzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Antzeztean, jarraitzen dio ordena egokiari.
- 1.2. Ondo ahoskatzen du testua, doinua eta intonazioa zainduz.
- 1.3. Esaten du bera zer pertsonaia den eta zer ordenetan irtengo den.
- 1.4. Ondo ulertzen du testua, eta badaki jantziak testuaren arabera prestatzen.
- 1.5. Antzeztean, gauza da keinu egokiak egiteko.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### Edukiak

- Antzerki-lana irakurtzea eta ulertzea.
- Atalak zein diren jakitea.
- Antzezlaren sekuentzia ulertzea, bereiztea eta erabiltzea.
- Antzerkirako behar diren jantziak idaztea.
- Proposamenak idaztea.

##### Ebaluazio-irizpideak

2. Dekoratuaren eta jantzien proposamena idaztea, erduetatik informazioa ateraz, antzezlanean erabiltzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Badaki dekoratuan zer eta nola egingo duen idazten.
- 2.2. Idazten du nola jantziko den.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### Edukiak

- Antzerki-lana ulertzea.
- Herensugearen kondaira irakurtzea.
- Abestia abestea.

##### Ebaluazio-irizpideak

3. Euskal kondaira eta abestia ulertzea eta ikastea, gero abesteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ondo ulertzen du herensugearen kondaira, eta gauza da haren marrazkia egiteko.
- 3.2. Badaki abestia abesten eta keinuen bidez dantzatzen.

#### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

##### Edukiak

- Gustua: gustatzen zait /ez zait gustatzen.
- Denbora: noiztik / noiz arte.
- Ekintzak: laburtu / luzatu
- Nori: niri / guri.

Ebaluazio-irizpideak

4. Norberaren gustua eta bestea adieraztea, pertsona bakoitzak berea duela esanez, eguneroko bizitzan erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Gustua adieraztean, badaki ezetza ordena egokian egiten.
- 4.2. Ondo bereizten ditu *niri* eta *guri*, eta, laguntzarekin, ondo erabiltzen ditu.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Udazkenaren ezaugarriak jakitea.
- Urtaroak urtean zehar banatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Informazioa bilatzea eta antolatzea.
- Testuak ulertu eta buruz ikastea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Jarraibide-testua ulertzea.
- Udazkenari buruzko testua irakurtzea eta ulertzea.
- Eguraldiari buruzko informazioa adieraztea.

### **Gaitasun digitala**

- Irudi edota marrazkietatik informazioa ateratzea.
- Eredua aztertzea, eta datuak jaso eta taulan antolatzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Lana banatzeko eta antolatzeko garaian irizpide batzuk edukitzea.
- Bakoitzaren irizpideak ikaskideekin partekatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Herensugearen kondaira irakurtzea eta ulertzea.
- Euskal abestiak ikastea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Sormena: antzezlanaren antzeztea, olerkia sortzea, letretatik marrazkiak osatzea.

## **4. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, norberaren edo beste baten kirol-fitxa egin, eta datu



pertsonalak ahoz azalduko dituzte.

Unitate honetan, kirol-munduan sartuko dira. Bertan, kirolarien datuak ahoz eta idatziz adierazten ikasiko dute. Ikasle gehienek kirolen bat egiten dute ikastetxeko eskolaz kanpoko orduetan edo beste giro batzuetan. Gerta daiteke ikasleren batek kirolik ez egitea; kasu horretan, kirolari batena egin dezake. Kirolaren gaia ez ezik, Gabonetako kondairena ere aurkezten zaie. Gabonetako enborraren istorioa azaldu, eta oraingo eta lehengo ohiturak konparatuko dira.

## **METODOLOGIA**

---

Banaka edo binaka, Internet edo kirol-fitxak erabiliko dituzte kirolariei buruzko informazioa jasotzeko eta fitxako datuak ezagutzeko.

Taldeka, objektuekin jolasteko eta ikasleen pisua nahiz luzera neurtzeko, metroa eta bainu-pisua erabiliko dituzte.

«Gabon-enborra» istorioa irakurriko dute, euskal ohiturak ezagutzeko.

CDa ahozko adierazpenaren eredua ikasteko erabiliko da, eta Gabon-kanta entzun eta abesteko.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Ereduetatik datuak jasotzea.

Pisua eta neurriaren inguruko konparazioak egitea eta ahoz adieraztea.

Elkarrizketaren bidez nortasun-datuak azaltzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Norberari edo kirolariari buruzko informazioa esaten ikastea, ereduetatik datuak jasoz euren nortasun-datuak adierazteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Fitxaren laguntzaz, badaki berari edo kirolariari buruzko informazioa esaten.
- 1.2. Informazioa esatean, ondo erabiltzen du aditzaren pertsona.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Data era luzean eta laburrean idaztea: urtea, hila eta eguna.

Kirolariaren nortasun-datuak bereiztea eta dagokien tokian idaztea.

Norberaren altuera eta pisua irakurtzea eta idazten jakitea.

Kirolak identifikatzea, bereiztea eta idaztea.

Informazioa aurkitzea; datuak jasotzea eta idaztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Kirol-fitxa idaztea, norberaren edo kirolari baten datu pertsonalei buruzko

informazioa emanaz, elkar hobeto ezagutzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Idazterakoan, jarraitzen dio fitxaren egiturari: izena, kirola, jaioteguna, adina, jaioterria, altuera eta pisua.
- 2.2. Badaki hainbat baliabide erabiltzen kirolariei buruzko informazioa lortzeko.
- 2.3. Ondo antolatzen du informazioa, eta badaki lana egiteko erabiltzen.
- 2.4. Kokatzen ditu datuak fitxan.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

Kondaira: Gabon-enborra.  
Gabon-kanta: «Dringilin dron».

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Gabonetako ohiturak irakurri eta ulertzea, euskal kultura ezagutzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Esaten du enborra zer sasoikoa den.
- 3.2. Hartzen du parte Gabonetako ohituretan.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

Superlatiboa erabiltzea: altuena, baxuena...  
Aditza: 1. eta 3. pertsonak.  
Data: urtea, hila, eguna.  
Ekintzak: egiten du, neurtzen du, pisatzen du...  
Pisua: kilogramo, gramo...  
Neurria: m, cm...

#### Ebaluazio-irizpideak

4. Kirol-fitxaren atalak eta eguna labur eta zuzentasunez adierazten ikastea, bizitzako egoeretan erabiltzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Bereizten ditu pisu- eta altuera-neurriak, eta ondo idazten ditu bakoitzaren unitateak: m, cm/ kg.
- 4.2. Aditzaren 1. eta 3. pertsonak ondo bereizten ditu, eta badaki biak erabiltzen.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarriko gaitasunak**

- Neurketak egitea (altuera).

- Datak kokatzea: urtea, hila eta eguna.
- Gauzak pisatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Informazioa antolatzeke, taulak erabiltzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Kirol-fitxa ulertzea eta idaztea.
- Eskutitza interpretatzea.
- Solasaldian aritzea.
- Pertsonen datuak ematen jakitea.

### **Gaitasun digitala**

- Datuak biltzea eta interpretatzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Pertsonen ezberdintasunez ohartzea, eta desberdintasunok errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Gabonen inguruko kultura-kondaira, menua eta abestia ezagutzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Norberaren pisuaren eta altueraren garapena zein diren jakitea.
- Norberaren datuak jakitea: jaioteguna, jaioterria...

## **5. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, txikientzako magia- eta txiste-emanaldia antolatuko dute taldeka.

Unitate honetan mintzamenak du lehentasuna. Jolas giroan, jarraibide- eta kontaketa-testuak landuko dituzte, gero eurek sortzeko. Egoera txikiei zuzendutako emanaldian oinarritzen da. Bertan, ikasleak dira artistak, eta, aurkeztuko zaien egoeran bezalaxe, magiazko trukoak nahiz txisteak prestatu eta egin edo kontatu beharko dituzte.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka, emanaldia antolatuko dute: aurkezlea, txiste-kontalariak eta magoa. Baliabideen aldetik, karta sorta eta klipa behar dira, liburuko trukoak egiteko; baina truko gehiago ekar daitezke etxetik, ikasi eta egiteko.

Bikote edo hirukotea, txistearen arabera, antzeztu egin ditzakete emanaldian kontaketa eta antzezpena tartekatzeke.

CDa ahozko ereduak entzun, ulertu eta ikasteko erabiliko da.

Taldeka, emanaldiaren antolaketa egingo da, lana eta ardurak banatuz.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Hasierako eta amaierako agurrak esatea.

Besteen aurkezpenak egitea.

Txistek kontatzea eta ulertzea.

Txistek buruz ikastea eta besteei kontatzea, doinua eta keinuak kontuan izanik.

Magiazko trukoaren azalpena ulertzea eta adieraztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Aurkezpena, magiazko trukoak eta txistek ikasi eta ahoz adieraztea, informazioa ulertuz, txistek antzetzuz eta magia eginez, emanaldian erabiltzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Aurkezpena egitean, egokitzen zaio hasierako agurra dagokion uneari.
- 1.2. Aurkezpenean, ondo adierazten ditu pertsonaiaren ezaugarriak, ordena mantenduz: nongoa den, zer izen duen eta zer den.
- 1.3. Trukoa ondo kontatzen du, eta ondo esaten ditu aginteak.
- 1.4. Badaki txistea buruz eta akats barik kontatzen.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Aurkezpen-gidoia idaztea.

Magia-trukoaren gidoia idaztea.

Txistea irakurtzea eta ulertzea.

Txistea idaztea.

Agurrak interpretatzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Emanaldirako gidoiak idatzi eta ikastea, ereduak aztertuz eta denon artean lanak banatuz, emanaldian erabiltzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Idazten ditu txiste errazak.
- 2.2. Ereduaren laguntzaz, osatzen du aurkezle eta magoaren elkarrizketa.
- 2.3. Ereduaren laguntzaz, osatzen du aurkezle eta txiste-kontalarien elkarrizketa.
- 2.4. Ereduaren laguntzaz, badaki berari dagokiona idazten.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### **Edukiak**

Aho-korapiloak.

Olerkia: «Mara-mara».

Ebaluazio-irizpideak

3. Ahoskatzen ikastea, aho-korapiloak irakurriz eta erreztatuz, hitzekin jolasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Aho-korapiloak ondo ikasten eta ahoskatzen ditu.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Erakusleak: hemen, hor, han.

Noren: zure, nire.

Non: atzean, barruan, gainean.

*Barik/gabe* postposizioa.

Zenbatzaile zehaztugabeak: gehiago, gutxiago.

Ebaluazio-irizpideak

4. Jarraibide-testuak ulertu eta esatea, aginteak esan eta betez eta denbora sekuentziari jarraituz, era zuenean komunikatzeko.

Ikasketa-adierazleak

4.1. Ondo erabiltzen du denborazko sekuentzia: orain, gero, azkenik.

4.2. Menperatzen ditu ikasitako erakusleak: hemen, hor, han.

4.3. Erabiltzen ditu zenbatzaile zehaztugabeak: gehiago, gutxiago.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Sailkapenak egitea.
- Espazioan orientatzea.
- Informazioa biltzeko taulak erabiltzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Informazioa biltzea, hainbat iturritara jota.
- Taldeka lan egitea.
- Oroimena lantzeko estrategiak erabiltzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Magiazko trukoak eta txisteak ahoz kontatzea.
- Besteen emanaldiak arretaz entzutea.
- Gidoiari jarraituz, emanaldia aurkeztea.

### **Gaitasun digitala**

- Datuak biltzea.
- Irudietatik informazioa ateratzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Lana banatzeko eta antolatzeko orduan irizpide koherenteak erabiltzea.
- Ikasgelako arauak betetzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Aho-korapiloak eta olerkiak irakurtzea.
- Sormena: txisteak eta magiazko trukoak asmatzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Lana taldekideen artean banatzea.
- Ardurak hartzea.

## **6. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, norberaren etxea non dagoen ahoz adieraziko dute; hain zuzen ere, non dagoen eta barrutik nolakoa den deskribatuko dute.

Planoak interpretatzen ikasiko dute: planoen arabera etxe batean zer-nolako gelak dauden, eta iragarkien arabera etxea zer tokitan dagoen. Ahozko azalpena egingo dute; ondoren, idatziz, non kokatuta dagoen, barrutik eta kanpotik zer duen, nolakoa den eta gela bakoitza zertarako erabiltzen den adieraziko dute. Ematen zaien eredia aztertu eta, bertan oinarrituz, eurena sortuko dute.

### **METODOLOGIA**

---

Taldea, egunkarietako edo higiezin agentzietako iragarkiak aztertu, eta eurretatik informazioa aterako dute.

Banaka, norberaren etxebizitzari buruzko informazio-fitxa beteko dute, etxean galdetuz. Binaka, informazio horren arabera, eta planoen laguntzaz, batak besteari ahozko deskribapena egingo diote.

CDa ahozko deskripzioaren eredia eta ulermena lantzeko erabiliko da. Audioko informazioa planoetan identifikatuko dute.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Ikaskideekin solasaldian aritzea eta arauak errespetatzea: hitz egiteko txandak, norberaren ideien eta iritzien azalpenak...

Ikaskideek eginiko deskribapen errazak ulertzea eta egitea.  
Plano baten laguntzaz, bakoitzaren etxearen barrualdea deskribatzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

1. Norberaren etxea ahoz deskribatzea, gidoiaren informazioa erabiliz, besteei etxearen berri emateko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Adierazten ditu kokapena eta helbidea kanpotik.
- 1.2. Barrutik gelak: norenak eta nolakoak diren, eta bakoitzean zer egiten duen.
- 1.3. Badaki etxeko gelak espazioan kokatzen eta non dauden esaten. (ezkerrean, eskuinean...).

### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

#### Edukiak

Etxearen deskripzioa ulertzea.  
Idazterakoan txukuntasunaren eta ordenaren garrantzia ulertzea.  
Emandako ordenaren arabera deskripzioa idaztea.  
Gaiaren inguruko informazioa jasotzea, ulertzea eta erabiltzea.  
Gidoia osatzea.  
Testuaren zatiak, paragrafoak, identifikatzea eta ordenan jartzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

2. Norberaren etxearen deskribapena idaztea, kokapena eta nolakoa den adieraziz, eta marrazkia edo plano eginez, denenekin albuma osatzeko eta irakurtzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Gidoiari edo eskemari jarraituz, egiten du deskripzio sinplea.
- 2.2. Gauza da informazioa gutxienez bi paragrafotan banatzeko: kanpoko kokapena eta barrualdea.
- 2.3. Etxearen plano edo marrazkia bat doa deskripzioan jarritako gelekina.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

«Errekatxo kantari» olerkia eta «Botilaren istorioa» irakurtzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Olerkia eta istorioa irakurri eta ulertzea, irudietatik informazioa ateraz, irakurketaz gozatzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ulertzen du botilaren istorioa: ordenatzen ditu irudiak.
- 3.2. Gauza da olerkiko testua marrazkian identifikatzeko.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### **Edukiak**

Kokapena: aurrean, atzean, ezkerrean...

Norena: amonaren gela, nirea...

Ekintzak: jolastu, jan, lo egin...

### **Ebaluazio-irizpideak**

4. Ahozko eta idatzizko adierazpen zuzenak egitea, behar diren baliabideak ondo erabiliz, testu ulergarria egiteko.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 4.1. Bereizten du etxeari buruzko lexikoa logelen kokapena adierazteko lexikotik, eta ondo erabiltzen ditu bata zein bestea.
- 4.2. Deskripzioan, badaki informazioa era ordenatuan idazten.
- 4.3. Logelak zertarako erabiltzen diren adierazteko, gauza da aditzak ondo erabiltzeko: jan, lo egin, irakurri...
- 4.4. Badaki *Noren* kasua laguntzarekin erabiltzen.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Etxea, kalea eta helbidea aztertzea eta kokatzea.
- Etxearen barruko planoak egitea.
- Espazioa banatzea.
- Espazioan orientatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Eskemak osatzea.
- Taldeka lan egitea.
- Antolaketa egitea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Deskripzioak ulertzea eta entzutea.
- Hiztegi zehatz bat ulertzeko inferentziak egitea.
- Deskripzioa ahoz egitea.

### **Gaitasun digitala**

- Hainbat iturritako informazioa biltzea eta interpretatzea.
- Irudietatik informazioa ateratzea.
- Datuak biltzea eta interpretatzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Iritziak ematea.
- Besteenganako errespetua adieraztea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Irudien bidezko adierazpena.



- Planoak interpretatzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Taldeko lana aurrera ateratzeko norberak hartutako ardurak betetzea.
- Lana antolatzea.

## **7. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, taldeka, elkarrizketa eta txotxongiloak prestatu ondoren, txotxongiloen saioa egingo dute.

Saiorako prestatuko dituzten testu idatziak gorde egingo dira beste uneren batean irakurtzeko. Euren elkarrizketak sortzeko, bi egoera aurkezten zaizkie. Pertsonaien izenak eta ekintzak gidoiaren arabera aldatuz, elkarrizketa berriak egingo dituzte.

Elkarrizketak prest dituztenean, talde bakoitzak bere txotxongiloak prestatuko ditu, eta behar duten dekoratua ere bai. Unitatean zehar, ereduak eskaintzen dira nahi dutena egiteko. Azkenik, lanak eta paperak taldekideen artean banatuko dira: aurkezpena eta elkarrizketako partaideak.

### **METODOLOGIA**

---

Launaka bilduta, txotxongilo-saioa egingo dute; elkarrizketa, txotxongiloak, dekoratua eta aurkezpena prestatuko dituzte. Ondoren, euren artean, saioko parte-hartzea zehaztuko dute (aurkezlea eta pertsonaien araberako parte-hartzea).

Gidoiaren arabera, eta ereduez baliatuz, ematen zaizkien testuak moldatuko dituzte.

CDa ereduak entzun, ulertu eta ikasteko erabiliko dute.

Irakurketaz gozatzeko, maleta magikoko jarraibide-testua dute.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Arretaz entzutea eta informazioa identifikatzea.

Elkarrizketaren ordena ezagutzea eta horri jarraitzea.

Saiorearen aurkezpena egitea: agurra, nor garen, zer egingo dugun.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Txotxongiloen saioa prestatzea, elkarrizketa nahiz panpinak prestatuz eta lanak banatuz, txikiagoei antzezteko.

### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Saioa egitean, ondo mantentzen du bere pertsonaiaren ordena, eta badaki bere txotxongiloari mugimendua ematen.
- 1.2. Saioan elkarrizketa ondo esaten du, galdera-erantzun egokiak eginez.
- 1.3. Elkarrizketan, badaki txanda errespetatuz hartzen.
- 1.4. Gauza da pertsonaiak dagokien tokian kokatzeko eta mugitzeko.
- 1.5. Banatzen ditu lanak taldekideen artean.
- 1.6. Denek parte hartzen dute txotxongiloen saioan.

### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

#### Edukiak

Txotxongiloen testua berridaztea: pertsonaiak, tokia edota gertaerak.  
Jarraibide-testua ulertzea eta osatzea.  
Ereduak aztertzea eta berridaztea.

#### Ebaluazio-irizpideak

2. Txotxongiloaren gidoia berridaztea, pertsonaiak, tokia edota gertaerak aldatuz, buruz ikasteko eta txotxongiloen saioan erabiltzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Txotxongiloen testua sortu baino lehen, idazten ditu ideiak gidoian.
- 2.2. Ereduari eta gidoiari jarraituz, sortzen ditu elkarrizketa berriak.
- 2.3. Elkarrizketan, mantentzen ditu *non*, *nora* eta *zertara* galderak, baita haien erantzunak ere.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

Ipuina: «Basajauna eta sorgina» irakurtzea.  
Koplak irakurtzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Literatura-testuak irakurri eta ulertzea, egoerako elementuren bat aldatuz, testua berria sortzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Gauza da pertsonaien sentimenduak eta ekintzak panpinekin adierazteko.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

*Nora* eta *zertara*: igerilekura igeri egitera.  
*Non* doa: erratz gainean.  
Ekintzak: jaitsi, igo, sartu...

Hasierako agurra: kaixo....

Ebaluazio-irizpideak

4. Landutako kontzeptuak ikasi eta erabiltzea, elkarrizketa koherenteak egiteko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki *nora* eta *zertara* egitura zuzenaz idazten.
- 4.2. Idaztean, egiten du ahalegina ordena jakin bati jarraitzeko.
- 4.3. Idaztean, zuzen erabiltzen ditu *non* galdera eta ekintzak.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Informazioa, datuak eta argudioak argitasunez adieraztea (zutabeetan).
- Objektuak espazioan kokatzea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Idatzi baino lehen ideiak gidoian idaztea.
- Lana antolatzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Ikaskideen azalpenak entzutea.
- Txandak errespetatuz bakoitzak bere iritzia ematea.
- Txotxongilo-saioa idaztea eta ulertzea.

### **Gaitasun digitala**

- Hainbat iturritako informazioa lortzea.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Bakoitzak bere irizpideak ematea, eta ikaskideenak entzutea eta errespetatzea.
- Ikasgelako arauak errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Txotxongilo-saioa idaztean sormena erabiltzea.
- Interpretazioa lantzea.
- Irudien bidezko adierazpenak egitea.
- Mimika adierazpen modu gisa erabiltzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Ardurak hartzea eta betetzea.
- Lana antolatzea.
- Norberak bere garapenean ardurak hartzen joatea.

## 8. UNITATEA

### AZALPENA

---

Azken xede moduan, errezetak ulertu eta postre bat idatziko dute, gero denen artean jateko.

Unitate honetan sukaldaritza-lanetan ibiliko dira. Errezetak irakurri, ulertu eta ahoz azalduko dituzte. Aldi berean, irudimena erabiltzea eskatuko zaie, euren errezeta sortzeko.

Proiektuan postrea prestatzea eta gelan jan edo edatea proposatzen da.

Hasieran, euren postrea zer egunetan prestatuko duten eta noiz jan edo edango duten erabakiko da.

### METODOLOGIA

---

Taldeka egingo dute lan, lexikoa lantzeko; janarien, tresnen eta kantitatea adierazten duten gauzen horma-irudiak egingo dira.

Taldeka, denon artean aukeratutako postrea egingo dugu.

CDa ahozko azalpena egiteko eredu ulertu eta ikasteko erabiliko da.

Talde handian, janarien izenak ikasteko, bingo-jolasa egingo da.

Bikoteka, errezetak irakurri, ulertu eta liburuko ariketak egingo dituzte elkarri laguntzeko.

### EDUKI MULTZOAK

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### Edukiak

Errezeten inguruko azalpenak ulertzea.

Errezetaren azalpena egitea.

Taldeko lanean aritzeko solasaldiko arauak betetzea.

Arretaz entzutea.

##### Ebaluazio-irizpideak

1. Gustuko postrea nola egin azaltzea, sarrera, izena eta osagaiak esanez, besteek postre hori egiteko.

##### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Identifikatzen ditu behar diren osagaiak.
- 1.2. Gauza da eman behar diren pausoak identifikatzeko eta jarraitzeko.
- 1.3. Entzun eta egiten du janariarekin egin behar dena.
- 1.4. Bere adierazpenean, ondo adierazten ditu sarrera, osagaiak, kopurua eta egiteko modua.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### Edukiak

Ereduen laguntzaz, beste errezeta bat idaztea.

Errezetak irakurtzea eta ulertzea.  
Errezeten atalak identifikatzea eta bereiztea.  
Ekintzak identifikatzea eta ulertzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

2. Ereduen laguntzaz, egingo duten postrearen errezeta idaztea, osagaiak, tresnak eta nola egiten den adieraziz, errezeta-bilduma egiteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Testuak errezeta-egitura du.
- 2.2. Idazten ditu errezetako atal guztiak.
- 2.3. Ondo antolatzen ditu atalak espazioan.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

Asmakizunak ikastea.  
Aho-korapiloak ikastea eta esatea.  
Komikia irakurtzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Asmakizunak eta aho-korapiloak ulertu eta ikastea, hizkuntzarekin jolasteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ikasten eta asmatzen ditu asmakizunak.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

Lexiko teknikoa: tresnak eta osagaiak.  
Denbora-sekuentzia: lehenengo, gero, ondoren, azkenik.  
Ekintzak: zuritu, ebaki, zatitu, nahasi...  
Errezetaren egitura: izena, osagaiak, nola egin, bereizi.

#### Ebaluazio-irizpideak

4. Errezetaren egitura ezagutzea, izena, osagaiak, tresneria eta prozesua bereiziz eta bakoitzaren tokia identifikatuz, errezetaren funtzioa barneratzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki *zer behar du/ditu/ditut/da/dira* egitura erabiltzen.
- 4.2. Gauza da denbora-sekuentzia bereizteko, eta ekintzak horren arabera idazteko eta esateko.
- 4.3. Ondo bereizten ditu ekintzak, eta konturatzen da bakoitzak duen eraginaz.
- 4.4. Bereizten ditu errezetaren atalak.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasuna**

- Elikadurak osasunean zer eragin duen jakitea.
- Elikadura egokia zer den jakitea.
- Kantitateen neurketak: osoa, erdia, koilarakada...
- Sailkapenak egitea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Taldeko lanean aritzea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Errezetak irakurtzea eta ulertzea.
- Errezetak adieraztea eta idaztea.
- Solasaldian aritzea postrea antolatzeko.

### **Gaitasun digitala**

- Hainbat iturri erabiliz errezetak bilatzea.
- Hainbat estrategia erabiltzea, errezetetatik abiatuz datuak aurkitzeko eta antolatzeko.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Lana banatzeko orduan irizpide bat edukitzea.
- Besteen proposamenak errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Errezetak irudien laguntzaz adieraztea.
- Gure eta beste kultura batzuetako elikadura-ohiturak ezagutzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Lana antolatzea.
- Ardurak hartzea eta betetzea

## **9. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, ezagunak diren ipuinen gertaera eta amaierak aldatuko dituzte ikasleek.

Unitatean zehar, ipuinen munduan sartuko dira. Euren atalak gogoratuko dituzte, eta hasierako esapideak; ipuinen aldaketa-ereduak aurkeztuko zaizkie, eta honetara heltzeko pausoak lantzen joango dira; azkenik, bikoteka edo banaka jarrita, ezaguna den ipuin bati, taldekide bakoitzak berari edo bikotekideari gustatzen zaion bukaera eman beharko dio.

## **METODOLOGIA**

---

CDan ipuinak entzun eta datuak identifikatuko dituzte.

Irakurketa eta idazketa errazteko, hieroglifikoak interpretatuko dituzte.

Taldeka, mahai-jolasera jolastuko dira ipuinen atalak gogoratzeko, eta hiztegia eta egiturak erabiltzeko.

Binaka, edo banaka, bakoitzak bere ipuinaren bukaera asmatuko du, proiektuaren amaierako ataleko pausoei jarraituz. Lanaren plangintza moduan erabiliko da hori.

Bikoteka edo taldeka, tradiziozko ipuin laburrak ikasi eta elkarri kontatuko dizkiote.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Ipuinak entzun eta ulertzea.

Falta dena entzun eta identifikatzea.

Falta dena ahoz adieraztea.

Pertsonaien elkarrizketak adieraztea.

Ipuina ahoz adieraztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Entzundako ipuinak ulertu eta adieraztea, datuak identifikatuz, eta atalak eta pertsonaiak bereiziz, solasaldian jolastuz amaierak asmatzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Mahai-jolasean, egin eta ulertzen ditu galdera-erantzunak.
- 1.2. Piktogramen laguntzaz, badaki laburpena egiten.
- 1.3. Gauza da informazioa marrazkiarekin erlazionatzeko.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Ipuinaren korapiloa eta amaierak identifikatzea.

Ipuinen amaierak berridaztea.

Hieroglifikoak ulertzea.

Ipuinak ulertzea, marrazkiz baliatuz.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Ereduen laguntzaz ipuinen amaiera berriak asmatu eta idaztea, sormenaren bidez amaierako gertaera eta pertsonaiaren erantzuna aldatuz, ipuin berria sortzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Asmatutako amaierak badauka koherentzia.

- 2.2. Aldatzen eta idazten du pertsonaia nagusiak zer egiten zuen.
- 2.3. Aldatzen eta idazten du korapiloan zer gertatu zen.
- 2.4. Erabiltzen du irudimena.

## **Literatura- hizkuntza**

### Edukiak

- Ipuin laburrak.
- «Zazpi antxumeak».
- «Txanogorritxo».

### Ebaluazio-irizpideak

3. Ipuin laburrak irakurtzea, ikastea eta ulertzea, solasaldian erabiltzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Badaki ipuin laburrak marrazkiarekin erlazionatzen.
- 3.2. Kontatzen ditu ipuin laburrak.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### Edukiak

- Izenordainak: zurekin, gurekin, zuekin...
- Denbora-antolatzaileak: bat-batean, orduan, gero.
- Zer gertatu zen?
- Zer egin zuen?
- Ekintzak lehenaldian.
- Ipuinaren egitura eta amaierako esapideak.

### Ebaluazio-irizpideak

4. Ipuinaren amaieran, laguntzarekin, zer gertatu zen eta pertsonaiak zer egin zuen idaztea, aditza eta antolatzaile egokiak eta amaierako egitura ondo erabiliz.

### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki antolatzaile egokia erabiltzen.
- 4.2. *Zer egin zuen* zuzen erabiltzen du.
- 4.3. *Zer gertatu zen* zuzen erabiltzen du.
- 4.4. Badaki letra larria izen berezietan eta puntu ostean erabiltzen.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Objektuak espazioan orientatzea, puntuen bidez.
- Sailkapenak egitea.
- Irudiak perspektibaz ikustea.



### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Taldeko lanak egitea.
- Antolaketa egitea.
- Ondorioak ateratzeko hipotesiak egitea.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Besteek diotena entzutea, ulertzea eta horren arabera erantzutea.
- Ahozko kontaketa egitea.
- Ipuina idaztea eta irakurtzea.

### **Gaitasun digitala**

- Ipuinetatik informazio zehatza ateratzea, antolatzea eta ekoizpenerako erabiltzea.
- Teknologia berriak erabiltzea, entzun edota irakurtzeko.

### **Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Kultura ezberdinetako ipuinak eta kondairak jakitea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Ipuinak asmatzeko sormena erabiltzea.
- Irudien bidezko informazioaz baliatzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Lana ondo planifikatzea.

## **10. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, taldeka, udako modako jantziak asmatuko dituzte, gero modako desfilea prestatzeko eta jantziak aurkezteko.

Unitatean modako desfilea antolatzea proposatzen da. Benetakoetan bezala, aurkezle bat egongo da azaltzen diren jantziak deskribatzeko. Bakoitzak bere jantzia asmatu, eta paperez prestatuko du desfilean eramateko. Beste kide batek horren aurkezpena egingo du.

Jantziak A 3ko paperean edo kartoi mehean egingo dira eta, soka batez, lepotik zintzilikatu daitezke.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka jarrita, jantzien etiketak irakurriko dituzte, gauzak zerez eginda dauden jakiteko. Aldi berean, denen arten, jantzien aldizkariak aztertuko dituzte, eta euren izenak horma-irudietan idatzi eta itsatsiko dituzte.

Taldeka, euren jantziak prestatuko dituzte, eta, deskribapena egiteko, ordena eta norena egingo duten erabakiko dute.

CDan ahozko deskripzioa eta aurkezleak diona entzungo dute. Aldi berean, ariketak egiteko, bertako informazioa erabiliko da.

Amaieran, norberaren ikasketa-prozesua nolakoa izan den esango dute, autorregulazio-ariketaren bidez.

Taldeka, kartetan jolastuko dira, jantzien izenak eta nolakoak diren ikasteko jolasaren bidez.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Ahozko aurkezpena egitea: agurra, nor den, nola doan jantzita, ordena...

Elkarrizketaren bidez lana antolatzea.

Jantziak deskribatzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Taldeka, desfilea prestatzea eta jantziak aurkezten ikastea, agurra eta dagokien ordena adieraziz, nork jantzen duen esanez eta jantzien deskribapena eginez, modako desfilean erabiltzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Banatzen dira ardurak.
- 1.2. Egiten du bakoitzak bere jantzia.
- 1.3. Aurkezpenean, esaten ditu agurra, noren jantzia, zertarako eta nolakoa den.
- 1.4. Aurkezpenean, ondo adierazten du partaideen ordena.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Idazteko prozedura: informazioa bilatzea, antolatzea, diseinatzea.

Etiketak aztertzea, irakurtzea eta informazioa idaztea.

Jantzien deskripzio-fitxa edo gidoia.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Aurkezpenaren eta deskripzioaren gidoia idaztea, atalak bereiziz, informazioa besteei adierazteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Etiketak ulertzeko, gauza da marrazki edo ikurrez baliatzeko.
- 2.2. Badaki aurkezpen-gidoia idazten.
- 2.3. Badaki jantzien deskripzio-fitxa informazio guztiarekin idazten.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### **Edukiak**

«Maritxu nora zoaz» abestia aldatzea.

### Ebaluazio-irizpideak

3. Abestia aldatzea, jantzien izenak eta ezaugarriak aipatuz, gero abesteko.

### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Erabiltzen du irudimena abestia aldatzean.
- 3.2. Abestian, badaki jantziei buruzko informazioa ematen.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### Edukiak

Aurkezpenaren agurrak.

*Norena da? Norentzat da? Zertarako da? Nolakoa da?*

Ordena adieraztea: lehenengo, bigarren, azkenik.

Nolakotasuna adieraztea: kotoizkoa, marraduna, plastikozkoa...

### Ebaluazio-irizpideak

4. Ahozko zein idatzizko adierazpen zuzenak egiten ikastea, ereduak aztertuz, adierazpen ulergarriak eta garbiak egiteko.

### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ondo erabiltzen ditu *zerezkoa, nolakoa, norena, norentzat* eta *zertarako*.
- 4.2. Aurkezpenean, ondo erabiltzen du irteerako ordena: lehenengo, bigarren, azkenik.
- 4.2. Hasiera eta amaierako agurrak ondo esaten ditu.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Jantzien osaera aztertzea eta ulertzea.
- Jantzien diseinurako neurketak egitea.
- Espazioa antolatzea.
- Marrazketarako orientazio espaziala izatea.

### **Ikasten ikasteko gaitasuna**

- Taldeko lana egitea.
- Ikasitakoaren autoebaluazioa.

### **Hizkuntza-gaitasuna**

- Iritziak ematea eta arrazoitzea.
- Informazioa ulertzea eta aukeratzea.
- Ahozko aurkezpena egitea.

### **Gaitasun digitala**

- Informazioa bilatzea.
- Informazio guztietatik behar duguna aukeratzea.

**Gizarterako gaitasuna eta gizabidezkoa**

- Besteen lanarekiko errespetua izatea.

**Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Jantzien diseinua egitean sormena erabiltzea.
- Irudien bidezko adierazpena.

**Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Lana banatzeko irizpideak finkatzea.
- Ardurak hartzea.